

## ELEBIDE: zure hizkuntz eskubideak babesteko

Hizkuntz Eskubideak bermatzeko zerbitzua jarri du abian Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntz ofizialen artean benetako oreka lortzea du Elebidek helburu.

## elebitasunerako bidea

Gizartearen etengabeko eskaera bati erantzutera dator Elebide. Euskal Autonomia Erkidegoan benetako elebitasuna lortzeko bideak jartzera. Modu horretan soilik berma daitekeelako euskal hiritar guztiek nahi duten hizkuntzan bizitzeko aukera izatea, hizkuntza hori bata edo bestea izanda ere.

Horregatik guztiagatik, Elebideren egitekoa ez da mugatzen kexak jaso eta urritasunak edo bidegabekeriak salatzera. Zerbitzu aktiboa eskaintzen dugu, kasu bakoitza arduraz jarraituz, konponbideak bilatuz eta elkarte eta erakundeekin elkarlanean arituz. Elebitasunerako bidean pauso eraginkorrak emanez.

## hizkuntzek mugarik izan ez dezaten

Hiritarren eskaerei arreta eskaini, eta haiei erantzun egokia eskaintzea da Elebideren helburua. Horretarako, salatuak diren entitateei informazioa eta aholkularitza eskaintzen dizkiegu Elebiden, hizkuntzak behar bezala erabil eta zaindu ditzaten.

Aldi berean, zerbitzua zabalik dago bai Hizkuntz Eskubideen inguruko eta bai zerbitzuaren beraren hobekuntzarako proposamen edo iradokizunak jasotzeko.

## zuretzat lanean

### eskaera edo kexen kudeaketa.

Zure Hizkuntz Eskubideak urratuak izan baldin badira, jarri gurekin harremanetan. Zuri entzun ostean, prozesua martxan jarri, eta jarraipen estua egingo diogu kasuari, dagokion entitateak erremedioa jar diezaion.

### informazioa eta aholkularitza.

Zure Hizkuntz Eskubideen inguruko, edo gaiarekin lotutako edozeren edo indarrean dagoen araudiaren inguruan zalantzarik baldin baduzu, baliabideen gaineko informazioa eta aholkularitza eskainiko dizugu.

### behar eta eskatzen duenei laguntza.

Salatuak diren entitate guztien esku jartzen gara, laguntza eskaini, eta Hizkuntz Eskubideak berma daitezen lortzeko.

### koordinazioa elkarte eta erakundeekin.

Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak babesteko, eta indarrean dagoen araudia bete dadin, elkarlanean jarduten dugu Herri Administrazioetako organoekin.

### proposamen eta iradokizunen harrera.

Hizkuntz Eskubideen babesarekin harremanen bat izan dezaketen proposamen eta iradokizun guztiak onartzen ditugu.


@ elebide@ej-gv.es

www www.euskadi.net/elebide

012

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ




ELEBIDE
Hizkuntz Eskubideak bermatzeko zerbitzua
Servicio para la garantía de Derechos Lingüísticos


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística


zure hizkuntz eskubideak babesteko